

Gorka Urbizu

MUSIKARIA

Azken aukera

Roxanne, you don't have to put on the red light... abesten zuen Sting-ek, aspaldiko partez Andy Summers eta Stewart Copeland handia alboan zituela. Iraila zen, iaz, astegun buruzuria Bartzelonako Olinpikoan. Estadioa lepo: 55.000 bat lagun The Police ikusteko. Banandu eta hogeitabi urte beranduago hantxe zeuden, geure begien aurrean eta nahikoa sasoiko.

Harainoko bidea, ordea, ez zen batere eroso izan. Nekagarria egiten da astearte batean Bartzelonaraino joatea, gau horretan bertan itzultzeko. Ez dakit zein ordenatan, baina denbora, dirua eta afizioa behar da horretarako. Halere, beti ez da Police ikusteko aukerarik izaten eta zintzo demonio azaldu ginen Iruñera, antolatutako autobusean igotzeko. Atzeko lekuak libre antzean zeudela eta hara jo genuen, lasaiago joango ginelakoan. Oker geunden: bide erdian ibilgailuak geldialdia egin zuen Tuterako Policzaleak hartzeko, eta handik gutxira haiek inguratu eta geunden, ihesbiderik gabe. Berrogeitaka urteko rockzale nostalgiko aldra, ikusitako kontzertuen pasadizo harrigarriena nork botako. Ozen, jakina, ahoa zabal-zabal eginda eta gidariak berak entzuteko moduan. Bada, handiena atzekoak askatu zuen:

– Ni Manarekin amorraturik nago. Izugarri gustatzen zaizkit, eta Zaragoza eta Iruñerako,



ALEX LARRETXI

biatarako sarrerak hartu nituen. Lehenengoan Espainiako bandera atera zuten, baina Iruñekoan, aldiz, Nafarroakoa bakarrik! Ez zitzaidan batere ondo iruditu.

Alfajarín parean botako zuen hori, oraindik 300 km geratzen zirela. Zorionez, tortura hura amaitu eta heldu ginen, halakoan, Bartzelonara. Beldur ginen, aspaldiko taldeen itzulerok duten arriskuen jakitun, baina latza izan zen kontzertua, gogoangarria zinez. Ziurrenik Police ikusteko azken aukera izango zen gainera. Edo behintzat hori zioen mundu guztiak, musikariek 60 urtetik gora zituztela gogoratzearekin batera.

Bada, atzo irakurri nuen berria: 2008an, Policek Valentzian, Madril eta Bilbon joko du. Eta ez da kasu bakarra: orain gutxi Euskal Herrian izan diren Springsteen eta Dylan, esaterako, Donostia eta Iruñean izango omen dira aurten. The Rolling Stones “azkenekoz” hainbat bider ikusi dutenekin gogoratu naiz halabeharrez. Halaxekoa baita zenbaitetan negozio hau, beti *azken aukera* saltzen digutela. Nolaz ez nintzen ohartu Sting-ek berak abisua ematen zigula mikrofonotik: *you*

don't have to put on the red light. Alegia, halakoe-tan ez dela zertan argi gorria piztu beharrik. Egongo direla aukera berriak aurrerago ere. Eta autobusa hartu beharrik gabe. Ez da gutxi, ez da gutxi. ■

Halaxekoa da zenbaitetan negozio

hau, beti *azken aukera* saltzen digutela. Nolaz ez nintzen ohartu

Sting-ek berak abisua ematen

zigula mikrofonotik

TXANDAN
Joxerra Garzia



Durangoko azokan gero eta erdal liburu eta disko gehiago dago; Mariasun Landak gaztelerez (ere) argitaratu du bere azken liburua; eta, hori gutxi balitz, nork eta bertsolari batek, nork eta Xabier Silveirak, gaztelerez idatzi du bere aurreneko nobela. Akabo, ia gureak egin du. Hori pentsa liteke, behintzat, prentsan eta sarean dabiltzan iritziak ikusita: berehala etorriko den euskal apokalipsi halako baten sintoma argi eta garbiak direla, aipatutako horiek guztiak.

Ez naiz ni oso baikorra kultura alorrean daramagun martxarekin, baina, kezkatzen eta kritikatzan hasita, hamaika kontu aipa nitzake, horiek baino kezkarriago eta kritikagarriago.

Kezka motzak

Batetik, gauzak dauden bezala (diru-laguntza sistema kaxkarra, sormenerako laguntza eskasa, kultura irizpiderik eza...), Durangok dakarren distortsioa onartu beste erremediorik ez dute literatura argitaletxeek, baina arazoa ez da Durango, gainerako guztia baizik. Hitz egin dezagun, beraz, benetan axola duten kontuez, txorakeriak behingoz utzita.

Bestetik, –eta marka da, gero, hau esan beharra– utz diezaiozun bakoitzari nahi duena nahi duen hizkuntzan idazten, hautu pribatua dena auzi publikoa bihurtu gabe. Arazorik nahi bada, ez dago asmatzen ibili beharrik: badago hamaika arazo benetako, euskal kulturaren esparrutik irten gabe ere. ■